

Letrak eguzkipean

Yolanda Arrieta

Esku artean daukat Arrasateko liburutegiak atera berri duen esku programa. Iban Zalduaren sarreratxo batek irekitzen du gonbidapena, eta bakardade konpartituaren lagun eta konplize bihurtzen du liburua. Ondoren, hamar idazleren hamarna titulu datoz, gustukoenetik hasita ilaran, argazki eta zerrenda buruaren gaineko komentariotxo banarekin. Atzealdean, berriz, udal liburutegiaren telefono eta e-maila datoz, ordutegi eta interneteko katalogoaren helbidearekin.

Idea polita bezain originala. Benetan.

Ordutegiari begira nagoela, ordea, aspaldidanik faltan botatzen dudana hura datorkit gogora. Zergatik ixten dira liburutegiak asteburuetan edo opor garaian?

Lasai, liburuzainok, ez dut zuen lanaldia bikoizterik nahi. Jaiegunetarako lan-poltsa berezi batek konpon dezake arazo hori. Ala ez? Era berean, udarako liburutegi ibiltariak aukera paregabea izan daitezke udako egun luzeetan jendea liburuetara hurbiltzeko. Ez duzue uste?

Baten batek barre egingo dio nire ideia inozo honi, baina zinez diotsuet ez dudala oso gauza arraroa planteatzen. Makina bat diru xahutzen dugu marketing kanpaina erraldoietan, modaren abalak justifikatzen duelarik bere antzutasun eta eragin eza.

Nire proposamena askoz xumeagoa eta zehatzagoa da. Letrak eguzkitara ateratzeko gonbit bat baino ez.

Eta argi gera dadila ez nagoela lagun arrasatearrek proposaturiko ekimenaren aurka.

Ondoan baizik